

## Hitza eta ekintza

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-02-01: 2.

Hitza da, batetik, gizakiaren giltza, pertsonaren pizgarri. Honek, zentzu zuzenean pentsatzen zuena adierazteko erabiliko zuen, noski, eta maliziak gero etorriko ziren, zibilizazioarekin. Gaurko gizartean ere hitzak ekintzaganako bidean duen zerbait adierazi nahi du printzipioz, batez ere euskaldunen soziologian. Euskalduna, ekintzetan hitzeko gizakia izan delako tradizioa jaso badugu ere, gaur marka hori galtzen ari garela bistan da. "Hitzez labur" ginela zioten, eta gaur ez du honela iraun, "ekintzaz luze" garela gezur bilakatzen ari da. Anaitasun eta askatasun bidetik, bake aldetik. Gaur hitza larregi entzuten dugu gure artean, eta ekintzaz antzu, mutu, geratu gara. Gertatzen da, hitza, hizkuntza, gizakumeen arteko komunikazio beharrak bultzata sortu bazen ere, bestela ere erabili daitekeela, pentsatzen duguna estaltzeko, batez ere politikaren munduan. Azken finean, hitzaren balioa, bere zentzuan dago. Egiaren bidean esateko, hitza agintzaria da, promesa, eta hitza eman egiten da, baina hitza jaten ere badakigu; gezurretan, zentzu okerrean, ere askotan erabiltzen denez, gezurretan itota dabilen gure gizarte honen ezin dio Euskal Herriari gauza zuzenik ekarri. Hitza eta ekintza herri politikako Burtsan hain behetik kotizatzen den herrian, itxaropena galtzen ari gara, eta ez gara inondik urruti joango.